



Getxo

EUROPAKO
MUGIKORTASUN
ASTEAKO

IRAILAK 16-22



Getxo

bizi ezazu

Ingurumena
Medio Ambiente

<https://www.getxo.eus/eu/medio-ambiente-movilidad/>

Irailaren 16tik 22ra, Getxoko Udaleko Ingurumen Unitateak Europako Mugikortasun Astea ospatuko du "Pertsona guztientzako mugikortasuna" lelopean.

Horretarako, denentzako jarduerak antolatuko dira, hala nola "Ikasi pedalei eragiten" edo "BAT puntua" ezagunak. Beste batzuk, ordea, berriak izango dira: "Biziz, adinik gabe", "Ibilbide herrikoia patinetan", "Argazki-lehiaketa"...

Halaber, irailaren 21ean (igandea), Autorik Gabeko Eguna dela eta, umeentzako jolasak antolatuko dira udalerriko hainbat elkarte eta kirol-klubekin elkarlanean.



#walk15

DESKARGATU
DOAN

Anima zaitetz eta hartu parte irailaren 16tik 22ra **Europako Mugikortasun Astea** dela eta egingo den Europako Urratsen Erronkan. "Ibili hirian barrena!" lelopean, EIT Urban Mobility ekimenak sustatutako erronka hau **Walk15** doako aplikazioaren bidez egingo da (deskarga ezazu erregistratzeko). Egunero egiten dituzun urratsak udalerraren guztizko zenbaketan gehituko dira. Astebetez, aplikazioak automatikoki erregistratuko ditu egindako urratsak edo kilometroak, eta, erronka amaitzean, hiri "ibiltarienak" zeintzuk diren jakinaraziko da. Bat egin erronkarekin!

MUGIKORTASUN ASTEKO JARDUERAK



ASTEARTEA 16
ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

ASTEAZKENA 17
AREETA KO GELTOKIA PLAZA

DYA TAILERRAK

11:00etatik 14:00etara Zatoz DYAren anbulantziara eta jabe zaitetz lehen sorospenak eta bihotz-biriketako bizkortzea (BBB) egiteko teknikez. Gainera aukera izango duzu, tentsioa neurtzeko eta segurtasunari eta prebentzioari buruzko zalantzak argitzez.



ASTEARTEA 16 ALGORTA GUNEA

OSTIRALA 19 AREETA GUNEA

**BIZIKLETAK KONPONTZEKO
KITEN BANAKETA**

12:00etatik 13:00etara Bizikletetarako konponketa-kit txiki bana emango zaie bizikletaz, patinetan edo beste ibilgailu jasangarri batean datozen pertsoneri.



**ASTEAZKENA 17,
OSTEGUNA 18
ETA OSTIRALA 19**

IZEN-EMATEA

BIZIZ, ADINIK GABE

11:00etatik 13:00etara - BIZKAIA ZUBIA PLAZA. Jarduera honi esker, adinekoek eta mugikortasun murriztua edo desgaitasunen bat duten pertsonen triziklo egokitueta ibiltzeko aukera izango dute. Helburua da integrazioa, autonomia eta zahartze aktiboa sustatzea, bizi-kalitatea modu iraunkorrean hobetzen laguntzeko.

ASTEAZKENA 17 ETA OSTEGUNA 18



IKASI PEDALEI ERAGITEN

18:00etatik 19:00etara - EVARISTO CHURRUCA KAIA. Bizikletan ibiltzen ikasteko tailerra, adin guztietarako. Helduei bizikletak utziko zaizkie, baina 8 urtetik beherako umeek euren ekarri beharko dute. Kaskoa nahitaezkoa da 16 urtetik beherakoentzat.

IZEN-EMATEA

**OSTEGUNA 18 SOLASALDIA GETXOKO
BIDEGORRIEI BURUZ**

19:30etik 20:30era - RKE. Romo Kultur Etxea. Pedro Sacristán Azpiegiturak, Obrak eta Zerbitzuak (Ingurumena) arloko arduradunak bidegorriei, horiek lotzeko planei eta kale batzuk oinezkoentzat partzialki jartzeko proiektuei buruz hitz egingo du. Zalantzei erantzun die eta iradokizunak entzungo ditu.



IZEN-EMATEAK: Telefonoz: **605 74 90 64** (lanorduetan). Posta elektronikoz: getxomovilidad@gmail.com (aukeratutako jarduera, izen-abizenak eta telefono-zenbakia adierazita). Jarduera guztiak doakoak dira.

MUGIKORTASUN ASTEKO JARDUERAK

OSTIRALA 19 BIZIKLETA ELEKTRIKOEN DOAKO PROBA ETA BIGARREN ESKUKO MODELOEN SALMENTA



17:00etatik 20:00etara - BIZKAIA ZUBIA PLAZA. Ez dakizu zer bizikleta elektriko mota egokitzen den ondeen zure beharretara? Zatoz probatzera Decathlonen e-bike berrien eta bigarren eskuko flota zabala!. Haurrentzako bigarren eskuko bizikletak ere izango ditugu.



IZEN-EMATEA

LARUNBATA 20 MENDI-IRTEERA

09:30etik 13:00etara - Fadura aparkalekua. Mendi-irteera irisgarria eta inklusiboa IBILKI elkartearen eskutik. Joëlette naturaz komunitatean gozatzeko aukerak ematen du, inor baztertu edo atzean utzi gabe.

IBILBIDE HERRIKOIA PATINETAN

11:00etatik 12:30era - BIZKAIA ZUBIA. Jarri patinak, kaskoa eta babes-ekipamendua, eta eman izena **FREESKATE Academy**-k antolatutako ibilbide gidatu honetan! Ibilbide segurua eta irisgarria, adin eta maila guztietarako diseinatu. Gidari profesionalak izango ditugu bidelagun, eta geldialdi dibertigarriak egingo ditugu Getxon.



ASTELEHENA 22 BAT puntua IZEN-EMATEA

(Bizikleten Azterketa Teknikoa) 11:30etik 13:00etara - Areetako Geltokia plaza. Ekarri zure bizikleta eta prest utziko dugu: gurpilen azterketa osoa (ganbera-aldaketa barne, behar izanez gero), balaztak, aldagailuak, presioak eta doikuntza orokorrak.



TAILERRA: MUGI ZAITEZ FAMILIAREKIN

18:00etatik 19:00etara - ESKOLEN PLAZA Partekatu musika, dantza eta mugimenduaren poza familiarekin, **VIVÓ LA DANSE STUDIO** dantza eskolaren gidaripean. Elkarrekin gozatzeko esperientzia dibertigarria eta sortzailea.



IGANDEA 21 BIZIKLETA MARTXA.

Ibilbide zirkularra bizikletaren erabileraz kontzientziatzeko

ABIAPUNTUA: 11:00etan - Areetako Geltokia plaza (taxi-geltokiaren aurrean). **TARTEKO SARBIDEA:** 11:40an - Telletxe kalearen eta Algorta etorbidearen arteko bidegurutzera (Teima saltokiaren aurrean)

HELMUGA: 12:30 inguruan - Bizkaia Zubia plaza **GARRANTZITSUA:** dortsalak 15 minutu lehenago entregatuko dira abiapuntu bakoitzean. Derrigorrezkoa da kaskoa erabiltzea. 8 urtetik gorako parte-hartzaileak..

GETXOKO INGURUMEN ARETOKO JARDUERAK

IGANDEA 21 ESKOLA-BIDEAK GINKANA + HAMAIKETAKO OSASUNGARRIA

4 TXANDA (10:15, 10:30, 10:45 eta 11:00etan). Familiarekin edo lagunekin (8 urtetik aurrera) parte har dezakezu ginkana honetan. Mugikortasun iraunkorrean oinarritutako jolasen bidez arakatuko ditugu Eskola-bideak. Ibilbideko hainbat puntutan egingo ditugu probak, eta hamaiketako osasungarri batez emango diogu amaiera jarduerari. Ez ahaztu argazkiak partekatzea #mugikortasuniraunkorrarenaldea traola erabiliz..

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEAK 688 88 35 96
www.ingurumenaretoagetxo.eus/aula-ambiental-getxo-2-2/

IGANDEA 21 - AUTORIK GABEKO EGUNA.

Trafiko-etenak egongo dira Algortan eta Areetan 08:00etatik 20:00etara

Telletxe Kalea (Algorta) - Kale Nagusia (Areeta)

11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara


Autorik Gabeko Eguna dela eta, Getxoko Udalak oinezko eta txirindularientzat jarriko ditu bi kale horiek, eta dibertimenduzko jarduerak antolatuko ditu familiaretan gozatzeko. **Autoen orde, bide-segurtasuneko zirkuitu bat, ohe elastikoak, kart eta minimotorrentzako zirkuituak, goitibeherak, hiru gurpileko patinak, skate-tailerrak, egurrezko jolasak, xake-saioak, gimnastika erritmikoko erakustaldiak, etab. aurkituko ditugu kaleetan. Gainera, motor elektrikoak probatu ahalko dituzu, eta haiei buruzko berritasunak ezagutu.**

Udalak herritarrak gonbidatu nahi ditu elkarbizitza eta ohitura osasungarriak sustatzeko diseinatu dugun hiri-esparru honetan parte hartzera.

MOTOR ELEKTRIKOEN PROBAK

Zatoz Areetako Geltokia plazara eta probatu motor elektrikoak BSCOOTERen eskutik. Ibilgailu elektrikoek abantaila ekonomiko eta ekologikoen berri jasoko duzu. Babes-ekipamendua eskainiko da eta behar den dokumentazioa aztertuko da.

BSCOOTER
WWW.BSCOOTER.ES



IBILGAILUEN ZIRKULAZIO-ETENAK ALGORTAN ETA AREETAN

Irailaren 21ean (igandea), 08:00etatik 20:00etara, ibilgailu pribatuen zirkulazioa eta aparkamendua mugatuta egongo dira Algortako eta Areetako erdiguneetako hainbat kaletan. Soilik baimenduko da ibilgailuak kale horietan dauden garajeetatik irtetea. Murrizketek ez dute eraginik izango garraio publikoan, ezta Getxoko Udalaren alde aurreko baimena duten establezimenduetako ibilgailuetan ere. Eskerak: ingurugiroa@getxo.eus. Mesedez, kendu ibilgailua aipatutako kaleetatik antolatutako jarduerak ez oztatzeko. Garabiak gune horietan aparkatuta dauden ibilgailuak kenduko ditu.



“GETXON ZEHAR, MINUTUZ MINUTU”

Mugikortasun Astea

ospatzeko, informazio-gune mugikor bat eta hainbat stand jarriko ditugu, bidegorriei eta konexio-denborei buruzko planoak eta liburuxkak banatzeko, Getxon mugikortasun iraunkorrerako sustatze aldera.



09/11tik 10/02ra, “MUGIKORTASUN JASANGARRIA GETXON” ARGAZKI-LEHIAKETA

Eman izena doako lehiaketa honetan. Bidali mugikortasun jasangarriarekin lotutako 2 argazki gehienez ere getxomovilidad@gmail.com helbidera, eta hartu parte hiriko bizikleta tolesgarri baten zozketan.

Lehiaketaren oinarriak:

<https://www.getxo.eus/eu/medio-ambiente-movilidad/>

